

## **NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ESTATALIZAZIOAREN ERAGINA NAFARROAN**

Estatalizazioaren inguruko azterketa sakona beharrezkoa da eta lan horri ekiteko eskaera formala egingo dio LAB sindikatuak Nafarroako Gobernuari. LABek egindako estimazioaren arabera, estatalizazioak 120.000 nafar langile baino gehiagori eragiten baitie, erregimen orokorreko langileen erdiari baino gehiago (216.000).

### **Lan erreformaren aurretik ere estatuko lan hitzarmena zuten sektoreak (25.000 langile baino gehiago)**

Lehenik eta behin, Lan Erreforma indarrean sartu aurretik ere bertako hitzarmenik ez zuten sektoreak ditugu. Sektore hauetan ez dago herrialdeko hitzarmena sortzeko borondaterik izan patronalaren aldetik eta ez da egon blokeo hori gainditzeko nahikoa indarrik. Esanguratsuak hamar hauek dira, 25.000 langile baino gehiago biltzen dituztenak:

● Elikagaien Industria	6.753
● Zahar egoitzak	3.569
● Banka eta aseguruak	2.962
● Saltoki Handiak	2.675
● Kimikak	2.501
● Irakaskuntza pribatua	2.200
● Esku hartze soziala	1.938
● Zabor bilketa	1.337
● Gasolindegjak	809
● 0-3	614
● Lorezaintza	388

Hainbat enpresatan, normalean tamaina erdi eta handikoetan, hitzarmen estatuala hobetzen duten enpresako hitzarmen edo itunak daude, bereziki Elikagaien Industria, Kimika eta Zabor Bilketan. Edozein kasutan ere, bi arazo daude: lehenik eta behin, herrialdeko zoru bat ez egoterakoan, enpresen arteko lehiakortasunak beheranzko presioa eragiten du eta enpresako negozioaz kolektiboa baldintzatzen du; bigarrenik, enpresako hitzarmena ez berritzeak estatuko hitzarmenaren aplikazioaren mehatxua dakar.

LABek hitzarmen autonomikoak aldarrikatzen ditu sektore hauetan guztietan. Une hauetan, sindikatu, patronala eta Gobernuaren arteko bide bat ireki da Esku Hartze Sozialeko lan hitzarmen propioa eratzeko. LAB da sektore honetako sindikatu nagusia.

---

## Lan erreformaren ondotik estatuko hitzarmena ezarri den sektoreak (4.000 langile baino gehiago)

Bigarrenik, bertako hitzarmenaren ordeztatu mailako ezarri den sektoreak ditugu, bai bertan behera geratu direlako (Grafikagintza eta Drogeriak), baita komunitate autonomoetan negoziatzeko debekua ezarri delako dagokion estatuko mailako hitzarmenean (Kolektibitateak eta era berean Drogeriak). Hiruren artean 4.000 langile baino gehiago biltzen dituzte:

- Kolektibitateak 2.266
- Grafikagintza eta industria metal grafikoa 1.739
- Drogeriak 275

Hiru hitzarmen horietatik harago, beste hainbat hitzarmen blokeatuta daude eta berritzen ez badira estatalizazio arriskuan daude. Langileen lan baldintzak murrizten saiatzeko erabiltzen da mehatxu hori.

Estatu mailako hitzarmenak ezartzeaz gain, estatalizazioa beste modu batez gauzatzen ari da: estatuko mailako enpresa hitzarmenaren bidez. Esaterako, logistikaren eremuan estatuko mailako enpresa hitzarmenak Nafarroako Merkantzien Garraiorako hitzarmenaren lan baldintzak murrizten dituzte. Berdin gertatzen da azpikontrataturako beste eremu batzuetan.

## Estatu mailako hitzarmenek zapalduko herrialdeko hitzarmenak (61.500 langile)

Hirugarrenik, indarrean egon bai baina estatuko mailako hitzarmenak zapalduko hitzarmen autonomikoak ditugu. Hainbat gai maila autonomikoan negoziatzeko debekua ezartzen da estatuko mailako hitzarmen hauetan. Estatalizazio progresiboa da, beraz, gauzatzen dena; epe motzean ez du sakoneko aldaketarik ekartzen, baina estatuko mailako hitzarmena bere osotasunean inposatzeko bide bat izan daiteke. Egoera honetan dauden sektore garrantzitsuenak hiru dira: Metala, Eraikuntza eta Garbiketa, non 61.500 langile aritzen baitira.

- Metalean (38.000 langile) estatuko mailako hitzarmenak lan osasuneko prestakuntzaren arauketaz jabetzen da.
- Eraikuntzako hitzarmenean (16.000 langile) maila autonomikoan honako gai hauek arautzeko debekua ezartzen da: oporrak, lanaldia, kontratazio eta azpikontratazioa eta hitzarmenaren inaplikazioa.
- Eta Garbiketako hitzarmenean (7.500 langile), berriz: sailkapen profesionala, lan arriskuen prebentzioa, prestakuntza, aukera berdintasuna, probaldia, zigor araudia.

---

**Sektore publikoa: Estatu mailako araudiak negoziazio kolektiboa mugatzen du (30.000 langiletik gertu).**

Azkenik, Nafarroako sektore publikoan lan egiten duten kasik 30.000 langileak aipatu behar dira. Besteak beste ordezkapen tasa eta gastuaren arauaren ondorioz, langileria kontratatu eta egonkortzeko, zerbitzuak publikatzeako edota lan baldintzak hobetzeko oztopo ugari ezartzen ditu Espainiako estatuak. Hartara, Nafarroako Gobernuak negoziazio mahaietan gehien errepikatzen duen esaldia honako hau da: “Madrilek ez du uzten”.

Iruñea, 2018ko maiatzaren 21a

---

## **Estatalizazioaren inguruko adibide batzuk**

### **Hitzarmen estatala eta autonomikoa duten supermerkatuak**

Saltoki Handien estatuko hitzarmena aplikatzen duten supermerkatuetan (esaterako Hipercor, Carrefour edota Leclerc), Nafarroako Elikagaien Merkataritzako hitzarmena aplikatzen duten horietan baino 2.064 euro gutxiago jasotzen dituzte langileek urtero.

### **Grupo Norte, lehen eta gero**

Grupo Norte BSHrentzat lan egiten zuen azpikontratan hilero 795 euro besterik ez zieten ordaintzen langileei. LABek deitutako greba bati esker, langile hauen baldintzak Nafarroako Merkantzien Garraioko hitzarmenarekin parekatzea lortu zen: soldatak %94 igo ziren (1544 euro arte), urteko lanaldia hamar egun murriztu zen (80 ordu) eta baimen nahiz bajetan hobekuntzak eman ziren.

### **Zahar egoitzak Gipuzkoan eta Nafarroan**

Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, Nafarroan ez dago zahar egoitzetako hitzarmen propiorik eta estatu mailakoa aplikatzen da. Horrek sortzen duen desberdintasuna nabaria da: administrazio laguntzaile batek hilero 968 euro jasotzen ditu Nafarroan eta 1240 euro Gipuzkoan. Lanaldian eta baimenetan ere nafarrak galtzen ateratzen dira.

### **Basozainak eta SOS Nafarroan, soldata igoera**

Hala basozainetan nola SOS Nafarroan %5 eta %4ko soldata osagarriak ezartzeko proposamena dago mahai gainean; badago horretarako aurrekontua. Alabaina, Gobernuak ezin ditu proposamen horiek gauzatu estatu mailako araudiaren ondorioz. Foru administrazioko langile guztien erosmen ahalmenaren galerari dagokionez (%12 inguru 2008tik) Gobernuak ez du negoziatu ere egin nahi, eskumen falta argudiatuz.